

## **DOKTOREGO AURREKO PRESTAKUNTZA** **KONTRATUETARAKO LAGUNTZEN DEIALDIA:** **FPI 2020 PROGRAMA**

### ***Deialdiaren ezaugarriak:***

Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioak 1.101 laguntzatarako deialdia argitaratu du. Horietatik, 10 gorde dira % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten pertsonak kontratatzeko.

**Laguntzen helburua da "Subprograma Estatal de Formación" azpiprograman barruan deialdietan onartutako proiektuetako bati lotutako tesiak egitea.**

[Esteka honetan](#) kontsulta daiteke laguntzak jaso litzaketen proiektuen zerrenda osoa.

### ***Eskatzaileek bete beharreko baldintzak:***

Eskatzaileak izan daitezke 2020/2021 ikasturterako doktorego programa batean matrikulatuta egon edo onartuak izan diren pertsonak.

Ezin izango dira eskatzaileak izan baldintza hauetako edozein betetzen duten pertsonak:

- Doktorego aurreko prestakuntza hasi izana doktorego aurreko prestakuntzara bideratutako beste laguntza batzuetarako finantziarioaz Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Teknologikorako Plan Estatalaren edo aurreko Plan Nazionalen esparruan onartu eta garatutako doktorego tesi baten bidez.
- Doktore titulua izatea, Espainiako edo atzerriko edozein unibertsitatek emanda.
- 12 hilabetetik gorako doktorego aurreko kontratu bat eduki izana eskaera aurkeztu baino lehen.

### ***Laguntzen ezaugarriak***

Laguntzen helburua da doktoreak prestatzea doktorego aurreko kontratuaren modalitatepeko lan kontratuen bidez. Kontratuok, gehienez, lau urterako dira, eta soldata urtean 20.00 euro gordin izango da

Laguntzak bi kontzeptu ditu:

- a. Kontratuen finantziarioa.
- b. I+G zentroetan egonaldiak egiteak eta doktorego ikasketetarako matrikulak sortutako gastuak.

### ***Eskaerak aurkezteko epea:***

**2020ko urriaren 13tik 27ra, 14:00ak arte**

Eskariak Internetez aurkeztu behar dira, aplikazio hau erabilita:

<https://sede.micinn.gob.es/ayudaspredoctorales/>

Behin prozesu telematikoa amaiturik, eskaera **sinatu eta erregistratu egin behar da** behar bezala aurkeztuzat jo dadin. Sinadura elektronikoa nahitaezkoa izango da Espainian bizi diren eskatzaileentzat.

### ***UPV/EHUko izapidea:***

Eskatzaileak berak aurkeztu behar du eskaera, deialdiaren lehen fase honetan ez baita beharrezkoa Ikerketaren arloko errektoreordearen baimena.

**Harremanetarako:**

Hautagaiek mezu elektroniko bidez jo beharko dute Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministeriora: [predoc.solicitud@aei.gob.es](mailto:predoc.solicitud@aei.gob.es) .

**Informazio gehiago:**

[Esteka](#)